



## GIPUZKOAKO EREMU DEGRADATUEN INBENTARIOA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK KONTRATATZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA

### 1.- AGIRIAREN XEDEA

Ezaugarrien agiri honen xedea oinarri teknikoak ezartzea da, ondoren definitzen diren lanak egitera begira GFAREN Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarentzako laguntza tekniko zerbitzuak kontratatzeko.

### 2.- AURREKARIAK ETA MOTIBAZIOA

22/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari ematen dizkion eginkizun eta lanen artean daude ingurumenaren eta naturaren aldetik hondatuta dauden eremuak lehengoratzeko eta hobetzeko proiektuak sustatzea eta garatzea.

Testuinguru horretan, eta hondatuta dauden eremuak lehengoratzeko bere 140 programaren barnean, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, azken urteotan zehar, berritze, lehengoratzeko edo balioeste proiektu zenbait garatu ditu, osagai zituzten elementuen ingurumen aldetiko kalitatearen ikuspegitik baldintza kaxkar edo desegokietan zeuden lurraldeko zona batzuetan.

Era berean, Gipuzkoako Klima Aldaketaren Kontrako Borroka Estrategia –Gipuzkoa Klima 2050- deituak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak landu eta 2018ko ekainean onartuak, xede, jarduera lerro eta ekintza zehatz batzuk ezartzen ditu, Foru Aldundiak bultzatu eta gauzatu ditzan, hain zuzen ere Gipuzkoako lurralde eremuaren barnean lortzearren Europa mailan klima aldaketa arintzera eta aldaketa horretara egokitzea begira ezarritako helburuak.

Bere 3. xedean (Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea), Gipuzkoa Klima 2050 Estrategiak 3.2 jarduera lerroa ezarri du, helburu duela Gipuzkoan azpiegitura berde sare bat sustatzea eta lurraldea iritsi-errazagoa egitea. Jarduera lerro horren barnean, eta besteak beste, ekintza zehatz bat jasotzen da, degradatutako eremuak zaharberitzea eta naturalizatzea alegia, lurraldearen erresilientzia mantentzeko (3.2.2.); gainera, horren helburua da eremu horiek CO<sub>2</sub>-a xurgatzeko duten ahalmena handitzea, prozesu ekologiko hondatu edo degradatuak lehengoratzeko, eta duten ingurumen kalitatea eta beste ekosistema-zerbitzu batzuk (erregulazio hidrikoa, biodibertsitatearen kontserbazioa, paisaiaren hobekuntza, etab.) eskaintzeko gaitasuna areagotzea.

Ildo horretatik, Gipuzkoa Klima 2050 Estrategiaren 3.2.2 ekintza horretan ezartzen da Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak inbentarioa egitea, bertan jasotzearren Gipuzkoan dauden eremu degradatuak edo ingurumena lehengoratzeko jarduerak behar dituztenak. Inbentario hori oinarria izango da, Foru Aldundiaz gain beste edozein administrazio edo erakundek eremu horien berri izan dezaten, eta beharrezko lehengoratzeko eta naturalizazio proiektuak sustatu eta gauzatu ahal izan ditzaten.

### 3.- LANAREN XEDEA

Lan honen xedea zera da, Gipuzkoan, funtsean arrazoi antropikoen eraginez, bere ingurumen eta natur elementuen ezaugarrietan eta kalitate estandarretan galera nabarmena jasan duten zonen inbentario, katalogazio eta lehen karakterizazioa egitea; galera hori eremu horiei berez dagozkien erabilera eta funtzioetan gertatua izan daiteke, edo eremu horiei, jasangarritasunaren ikuspegitik, ezartzen zaizkien edo espero diren erabilera eta funtzioetan gertatua eta, horrenbestez, berritze, zaharberitze edo lehengoratzeko jarduerak behar dituzten zonak dira.



Ondorio horietarako, azterketak, lehenik, definitu eta mugatu egin beharko ditu inbentario, katalogazio eta karakterizazio lanaren xede izango diren eremu degradatu motak. Gainera, azaldu eta argudiatu egin beharko du zer arrazoi dituen, posible diren proposamen guztien artean kontuan hartu beharreko eremu proposamen tipologiko zehatz bat egiteko.

Eremu degradatuak tipifikatu ondoren, Gipuzkoa mailan zona horiek inbentariatzeko lana bera egingo da. Horretarako, aurretik dokumentazioa bildu beharko da, administrazio publikoetan edo bestelako erakundeetan dauden azterketa, inbentario, katalogo eta beste edozein dokumentutan oinarrituta, eta landa-lana ere egin beharko da, prospekzio lanarekin eta azterketa-eremuaren lurralde ikuskapen eta ikuskapen fisikoarekin batera, eremu edo zona degradatu horien karakterizazioa kontrastatu, gaurkotu edo argitu ahal izateko, edo dokumentu aipatuetan jaso gabeko zenbait alderdi jaso ahal izateko.

Hori guztia azken dokumentu batean jasoko da, bertan labur azalduko baita garatutako prozesu osoa, inbentariatutako zonetako bakoitzari dagozkion fitxen zerrendarekin batera. Fitxa-zerrenda horrek zonak katalogatzeko eta karakterizatzeko beharrezko datu guztiak bilduko ditu, eta bertako datuak datu-base digital batean antolatuko dira, beharrezko eremu alfanumerikoz hornituta; gainera, datu-baseak geoerreferentziaziorako datuak izango ditu, informazio geografikoko sistemak erabiliz ere ustiatu ahal izateko.

#### **4.- LANAREN EZAUGARRIAK**

Egin beharreko lanaren izaera, edukia, faseak eta eginkizunak definitzeko baldintzak:

##### **4.1.- Kontuan hartu beharreko eremu degradatuak:**

Aurreko apartatuan aipatutako "eremu degradatu" kontzeptuaren barnean, eta Gipuzkoako eremu degradatuen inbentarioa egiteko lanari ekin eta inbentario hori ahalik eta zorrotzen eta osoena baina, aldi berean, ezarritako denbora-epeetan gauzatzeko modukoa izan dadin, gogoeta bat aurkeztu beharko da, analisi batekin batera, kontuan hartuko diren eremu degradatuen tipologia eta ezaugarriei dagokienez; eremu degradatuen artean honakoak aztertuko dira:

##### **1.- Lurzoru urbanizaezinetako eremu degradatuak:**

- Erauzketa eremu abandonatuak (harrobiak, meategiak, meatzaritzako putzuak, etab.).
- Hondakin solidoen isurketa klandestinoak dauden eremuak (isurketa-guneak, hondakindegia, EEHak, betelanak, etab.) eta lurzoru kutsatuak dituztenak.
- Iragazkortasun eta fauna konektatzeko arazoak dauzkaten eremuak (komunikazio azpiegiturak daudelako, lurzoruaren erabileraren kudeaketagatik, etab.).
- Landaretza inbasorea duten eremuak eta landaretza degradatua duten eremuak (LAGetan jasotako Ingurumena Hobetzeko Eremuak, etab.).
- Ibai ibilgu eremuak eta aintzira eremuak (Ur Jabari Publikoa eta Polizia Eremua), integrazio morfologiko eta ekologiko baxukoak eta/edo ur kalitate kaxkarrekoak.
- Kostaldeko eremuak (Itsas eta Lehorreko Jabari Publikoa eta Babeseko Zor Eremua), integrazio morfologiko eta ekologiko baxukoak eta/edo ur kalitate kaxkarrekoak.
- Higadura edo lerradura arriskua duten eremuak.
- Paisaia aldetiko integrazio baxuko eremuak (udal mailan eta udalaz gaindiko mailan dauden Paisaiaren Katalogo eta Paisaiarako Ekintza Planen arabera).



- Eremu degradatuak (instalazio abandonatuak, etab.), nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jardueri eta lurzoru urbanizaezineko ekipamenduei (komunikazio, hornidura, saneamendu eta abarrekoei) lotuak.
- Lurzoru urbanizaezineko eremuak, hirigintza-plangintzan, hots, plan berezi, hobekuntza-plan eta abarretan horiek birgaitu beharra jasota dagoenean.
- Etab.

## 2.- Hiri-lurzoruko edo lurzoru urbanizaezineko hirigintzako eremuei lotutako eremu degradatuak:

- Hiri zonak/hiri inguruko zonak, garatu ez direnak eta ingurumenaren aldetik egoera desegokian daudenak (lurzoru, ur, landaretza, paisaia eta abarren kalitatea): betelan antropikoak edo hiri hondakin solidoak isurtzen diren puntuak dauzkaten orubeak, landaretza inbaditzailea dutenak, paisaiaren integrazio txikikoak (udal mailan eta udalaz gaindiko mailan dauden Paisaiaren Katalogo eta Paisaiarako Ekintza Planen arabera), etab.
- Etab.

Eremu hondatuen aurretiazko sailkapen horretatik eta eremu horietako bakoitzak inbentarioan eduki behar duen informazio eta datu mailatik abiatuta (4.2 apartatua ikusi), proposamen arrazoitua aurkeztuko da, azkenean azterketaren xede izango diren eremu degradatuen tipologiari dagokionez. Horrela, azterketa sistematiko eta osoa eginik, bat etorri ahal izango dira, proportzio egokian alegia, eskala, eremu kopuru eta horiei buruzko datuen xehetasun maila, eta horiek guztiak eskuratzeko zailtasunak edo egin behar diren ahaleginak. Proposamen horretan oinarrituta, enpresak eta azterketaren Zuzendaritza Teknikoak adostuko dute azken inbentarioaren tipologia.

### **4.2.- Inbentarioaren edukia eta karakterizazioa:**

Eremu degradatu bakoitzerako fitxa bat egingo da, eta horretan kokapen eta karakterizazio datu zehatzak jasoko dira; betiere honako informazioa jasoko da, gutxienez:

- Fitxaren eta eremuaren kodea.
- Degradazio mota, adostu den sailkapenaren arabera.
- Kokapenari buruzko datuak: eremu funtzionala, udalerrria, parajea, katastroko erreferentzia, UTM koordinatuak, etab.
- Eremu osoaren azalera, eta ukitutako partzela bakoitzarena.
- Arazoaren deskripzio orokorra: degradazio mota eta ingurumenaren gaineko afekzio potentzialak (fisiko edo geomorfologikoak, paisaia aldetikoak, ekosistema eta espezieen gainekoak, lurzoru eta uretako kutsadura kimiko edo biologikoak eraginak, etab.). Arrisku posibleen izaera (prozesu naturalak –uholde arriskua, lerradurak, etab.-, jatorri antropikoa dutenak, biztanleriarentzako eta ondasunentzako arriskuak, fauna, flora eta espezie babestuentzako arriskuak, etab.) eta lurraldearen gaineko afekzio mota: zehatza/lausoa, horren denbora-bilakaerarekin batera: degradazio puntuala, jarraitua, diferitua, etab.
- Sailen jabetza eta erabilgarritasuna (titulartasun publiko edo pribatua, etab.).
- Eremuari buruzko datu historikoak: lehendiko erabilera eta jarduerak, isurketak, etab.
- Hirigintzako datuak: hirigintzako sailkapena eta egungo erabilera, erabilera nagusiak eta indarrean den plangintzarekin bateragarriak.
- Lurralde afekzioak eta afekzio sektorialak: lege aldetiko baldintzatzaileak, zorrak, figurak edo lurralde plan partzialak edo sektorialak, babes planak, kultur alderdiak, etab.



- Beste datu interesgarri/ohar batzuk: zonari buruzko azterlanak, salaketak, eremuan jada gauzatutako ingurumena leheneratzeko jarduerak, etab.
- Lehengoratzeko jardueraren balorazioa: horren balioa, eremu bakoitzaren garrantziarekiko edo/eta lehentasun mailarekiko, birsortzera/leheneratzera begira (hori zehaztearen egingo den eskala baten arabera betlere).
- Kokapen planoak: eskala egokiz egindako planoak, inbentarioan jasotako eremua kokatu eta identifikatu ahal izatearren.
- Kokapenaren argazkia, degradazio mota eta horren irismena egiaztatu ahal izatearren.

Fitxa bakoitzak azkenean jasoko dituen datuak edo eremuak enpresak eta azterketaren Zuzendaritza Teknikoak adostuko dituzte.

#### **4.3.- Informazioa biltzeko metodologia:**

Esleipendunak definitu, bildu eta sistematikoki berrikusiko du eremu degradatuei edo leheneratu edo birsortu beharrean dauden inguruei buruz administrazio eta erakundeetan dagoen informazio guztia. Ildo horretatik, berrikusi eta, hala dagokionean, gaurkotu egingo dira, lanean txertatzera begira tratatzearekin batera, zehazki gai honi dagokionez Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta Gipuzkoako udaletan eta bestelako erakunde batzuetan dauden inbentario eta katalogo, plan eta azterlanak; horien artean, honakoak:

- Lurzoru kutsatuei buruzko katalogoak, Eusko Jaurlaritza eta udalenak.
- Abandonatutako erauzketa-jardueren inbentarioa, Eusko Jaurlaritza eta GFarena.
- Landaretza inbaditzaileari buruzko inbentarioak, GFA, eskualde agentzia eta udalenak.
- Korridore ekologikoen sarearen arabera fauna konektatzeko arazoak dauden puntuak (EAEkoak, Eurohirikoak, herrietakoak, etab.).
- Ur eta estuario ekosistemak lehengoratzeko eta hobetzeko plan gidariak, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarenak.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan erabilerarik ez duten oztopoak iragazkortzeko jardura programa.
- Gipuzkoako KBE, parke natural eta biotopoak kudeatzeko tresnetan jasotako kontserbazio eta hobekuntza jarduerak.
- Lurralde plangintzan, hots, Gipuzkoako Eremu Funtzionalen LPP eta LPSetan –hezeguneak, ibaien antolaketa, nekazaritza-basogintza, etab.– jasotako hobekuntza, lehengoratzeko eta berritze jardura positiboak.
- Udaletako plangintzan, hau da, HAPOetan, babes eta kontserbazio plan berezietan, birgaitze plan berezietan eta abarretan jasotako hobekuntza, lehengoratzeko eta berritze jardura positiboak.
- Paisaiari buruzko zehaztapen eta katalogoak eta ekintza-planak, udalenak.
- Udalek egindako arrisku mapak.
- Udalek egindako isurketa-puntuen inbentarioak.
- Etab.

Metodologiari dagokionez, informazio hori guztia eskuratzeko eta tratatzeko kontsultatu eta analizatu egingo dira kasuan kasuko dokumentuak. Dokumentu horien jabetza duten erakunde eta administrazioei berriaz eskatuko zaizkie dokumentuak, edo, bestela, inkestak edo elkarrizketak egingo zaizkie administrazio edo organismo bakoitzean azterketa horien arduradun direnei. Ildo horretatik, eta udalak direnez dagokien lurralde mailan egon daitezkeen eremu degradatuak ondoen ezagutzen



dituzten administrazio hurbilenak, dokumentazioa edo horri buruzko inkesta bat betetzea eskatzeaz gain komenigarri ikusten da, hala hartzen diren kasuetan, aurrez aurreko elkarrizketa edo bilera bat egitea zenbait udalerritako teknikariek, udal mailako informazioa bildu, kontrastatu edo osatu ahal izatera begira.

Edonola ere, esleipendunak beharrezko egiaztapenak eta landa-lanak egin beharko ditu eta, horretarako, inbentarioaren parte izango diren lekuetara joan beharko du, hain zuzen ere karakterizazio fitxak eduki behar dituen datuak egungo errealitatearen arabera egiaztatu, bildu eta egoki betetzearren (argazkiak, azalerak, dauden elementuak eta arazoak, etab.).

#### **4.4.- Argitaratzeko moduko dokumentua egitea:**

Kontratzen den laguntza teknikoak, lana amaiturik, honako dokumentazioa eman beharko du:

- Lanaren xede izan den eremu zehatzari buruzko azalpena. Horretan agerian jarri beharko ditu, batetik, eremu degradatuen tipologiak, eta, bestetik, eremu horiek behar bezala karakterizatzeko beharrezko iritzitako datuak aukeratzera eraman duten abiapuntuko baldintzatzaileak.
- Inbentariatutako zona bakoitzari dagokion fitxa, egoki katalogatzeko eta karakterizatzeko behar dituen datu guztiekin.
- Formatu digitaleko datu-basea (Acces formatua), hirigintzako fitxa bakoitza osatzen duten eremu guztiak beteta, argazkiak eta planoak barne.
- GIS artxibo georreferentziaduna (shape formatua), inbentarioko fitxa bakoitzeko datu-baseetako eremuei dagozkien azalerak eta ezaugarriak jasota. Erregistro bakoitza behar bezala lotuko zaio dagokion fitxari eta material grafikoari, hots, argazki zein planoari.

Lan hau, aurrerantzean, erabili egingo dute bai GFAk bai bestelako zenbait agentek (udalek, aholkularitzek, partikularrek, eta abarrek). Horregatik, dibulgazio izaera ere eman beharko zaio, eta lan osoa argitaratzeko modukoa izango da, irudiduna eta ikusgarria, zabalkundea eta ulerkuntza erraztearren.

### **5.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTU ETA EUSKARRIEN EZAUGARRIAK**

Deskribatutako lanak euskarri informatikoan eta paper euskarrian jasoko dira, eta informazioa, berriz, behar bezala antolatuta. Gainera, informazioa eskuratzeko modua ordenatua eta koherentea izango da, eta eranskinak ere erabili ahal izango dira, dokumentuetako testuan sartzea egoki ez den informazio osagarria ematera begira.

Aurreko 4.4 apartatuan adierazitako dokumentuak, eta prozeduran zehar eskatzen diren bestelakoak, euskaraz eta gatzelaniaz aurkeztuko dira, bai euskarri informatikoa dutenen kasuan bai paper euskarrian datozenen kasuan.

Laneko dokumentuen, hots, testu, datu-base, artxibo georreferentziadun, grafiko, argazki eta abarren euskarri informatikoa bateragarria izango da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren softwarearekin (4.4 apartatuan adierazten direnen kasuan, aipatzen den euskarri zehatza beharko dute), eta, gainera, aukera eman beharko du Zuzendaritzaren web atarian jarri eta bertatik jaitsi ahal izan daitezen.

Paper formatuko dokumentuen kasuan, azken dokumentazioaren bi kopia aurkeztuko dira, behar bezala koadernatuta eta alde bietatik inprimatuta, DIN A4 formatuan eta paper birziklatua erabiliz.

### **6.- ERABILI BEHARREKO OINARRIZKO INFORMAZIOA**

Esleipendunak beste iturri batzuetatik eskuratu behar duen informazioa alde batera lagata (baldintza-agiri honetako 4.3 apartatua), Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak daukan eta



lanak behar bezala egiteko komeni den dokumentazio guztia jarriko du esleipendunaren eskura, eta, helburu berarekin, esleipendunak hirugarrenekin egin beharreko gestioak erraztuko ditu, beharra sortuz gero.

Dena den, esleipendunaren eginkizuna izango da harremanak, elkarrizketak eta informazio eskaerak zertzea eta, hala dagokionean, lana egiteko behar diren baimen eta lizentziak, ofizialak zein partikularrak, eskuratzea.

Esleipendunaren erantzukizuna izango da datuak eta konklusioak ateratzeko beharrezko informazio guztia lortzea, eta lana behar bezala amaitzea. Eta ezingo du denbora faltarik edo zailtasunik alegatu, ezta aurrekontua handiagotzea eskatu ere.

## 7.- LANERAKO EPEAK

Lan osoa emateko gehieneko epe aurreikusia 2019ko abenduaren 31 artekoa izango da.

## 8.- LANAREN IKUSKARITZA ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOAK

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko teknikariek bere gain hartuko dute lanaren zuzendaritza teknikoak.

Eta Zuzendaritza Teknikoaren eginkizunak honakoak izango dira:

- Kontratatzan den azterketa egiteko beharrezko bitarteko eta antolaketa egotea galdatzea.
- Ezaugarri teknikoari buruzko agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako bestelako baldintzak interpretatzea.
- Lanaren xede den gaiari buruz zuzendaritza teknikoak definitzen dituen irizpideak eta testuak jaso daitezela eskatzea.
- Azterketan sartzea komeni den aldaketak programatzea. Horretarako, Zuzendaritza berariaz ahaldunduta egongo da laneko programa aldatzeko, betiere kasu bakoitzeko zertzelada bereziekin eta lortzen diren emaitzekin bat, eta azken aurrekontua aldatu gabe.
- Esleipendunak aurkezten duen dokumentazio partziala eta azken dokumentazioa aztertzea. Egoki deritzen zuzenketak eta aldaketak adierazi ahal izango ditu, testuan, tauletan, grafikoetan, kartografian eta ikus-entzunezko materialean, dokumentazioaren behin betiko harrera baino lehen.
- Egindako lanari buruzko ziurtagiriak eta likidazioa ematea, adostutako egikaritze eta ordainketa epeen arabera, betiere lan aurkeztuak, Zuzendaritzaren iritziz, baldintza-agiri honetan jasotako eskakizunak betetzen baditu.

## 9.- ADMINISTRAZIOARI LAGUNTZEA

Esleipendunaren lantaldeak bilerak egingo ditu, aldian-aldian, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko teknikariek, hauek adierazi tokian eta kopuruz, egin behar dituen txosten eta lanetarako irizpide eta edukiak kontrastatzeko.

Era berean, lanaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezko iritzitako zerbitzu profesional guztiak emango dizkio Administrazioari, inolako kostu osagarririk gabe, barnean direla azalpen bileretara joatea, jendaurreko informazioa, etab. Zuzendaritza Teknikoaren iritziz beharrezko eta arrazoizko diren jarraipen bilera guztietara joango da, Zuzendaritza Teknikoak berak zehazten duen lekura, esleipendunaren erredakzio taldeko kideak bizi diren lekua dena dela.

Obligazio hori azterketaren harreratik 6 hilabete igaro arte mantenduko da.



Lana egin bitartean, lantaldea eta ekipamendu teknikoa azterketari atxikita geratuko dira, eta ezingo dute azterketa utzi, Zuzendaritza Teknikoak horren berri ez badu.

## **10.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA LANAREN JABETZA**

Lanaren esleipendunak baldintza-agiri honetan oinarriturik egiten dituen lan eta dokumentu guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren jabetzakoak izango dira. Horrek erreproduzitu ahal izango ditu, edo zabalkundea eman ahal izango die, osorik edo partzialki, egoki deritzon moduan, eta esleipendunak ezingo dio horri kontrarik egin.

Enpresa esleipendunak ezingo ditu baldintza-agiri honetan oinarriturik egindako txostenak eta dokumentuak erabili edo zabaldu, ez osorik ez partzialki, zuzenean edo laburpen gisa, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak berariaz baimendu ezean. Edonola ere, esleipenduna izango da obligazio hau urratzetik ondorioztatzen diren kalteen erantzulea.

Donostian, 2019ko irailaren 27an

Ingurumen eraginaren  
ebaluaketako arduraduna

Octavio Oruezabal

